



ITOIZKO URTEGIA ETA
NAFARROAKO UBIDEA

NEGOZIOAREN PORROTA

Nafarroan barrena hondoratzen ari den ubidearen arrastoan

1993an hasi ziren eraikitzen Itoizko urtegia. Nafarroako ubidea mende honetako kontua da. Eraikuntza enpresak eta bankuak pixka bat gehiago aberastu ziren bikotearekin. Hasi zen, ez da pentsatu bezala bukatu eta proiektua dirua barra-barra galtzen ari da. Ubidean barrena sartu gara Agoitzen eta Pitillasen atera, daraman uraren balioa ulertu eta azaldu nahian.

Nafarroako Ubidearen proiektua berraztertuko zuela agindu zuen 2015eko uztailean eratu ondoren Nafarroako Gobernu berriak. Erriberaren hegoaldeari begira pentsatua dago ubidearen Bigarren Zatia eta urte bukaerarako Gobernuak prest izango du kostuei eta beharrei buruzko azterketa zehatza. Ureztatzeaz eta nekazal elika-industriaz arduratzen den INTIA enpresa publikoa ari da lan hori egiten. Datuak ezagutu ondoren, Nafarroako Gobernuak partehartze prozesu zabala irekiko du eta ondoren erabaki beharko du zer egin Nafarroako ubidearen bigarren atal honekin: proiektua abiarazi, aldatu edo betirako lurperatu.

Bitxia izango da azterketa ikustea. INTIA arduratu da orain arte ureztatze faseari dago-kion guztiaz eta Itoizko urtegiaren eta Nafarroako ubidearen apologia egin du etengabe, nagusiaren beharrei eta estatistikei men eginez. Gobernu berriarekin kargu nagusien aldaketa ere izan zen INTIAN, halako aldaketetan ohikoa denez. Irizpide batzuk ziren tokira, oso bestelakoak iritsi dira, goi karguetara bederen, pentsatzekoa baita tarteko kargu teknikoetako iritziak ordura artekoak izango direla eta, seguruenik, askotarikoak. Aldaketarekiko erresistentziak ez dira gutxi halakoetan.

■ **Egilea: Xabier Letona**

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.522. zenbakiarekin banatua, 2016ko irailaren 25ean)



Aspaldiko eskaria da azterketarena, eta ez bakarrik ureztatze eskariez, Itoizko urtegia-Nafarroako ubidea proiektu osoaz ere bai. Zer agindu zen proiektu erraldoi hauekin? Zer aurreikuspen egin ziren? Zer bete da? Zer ez? Zein eragin ekonomiko, sozial eta ingurumeneko izan ditu? Galdera asko dira eta horien erantzunik izan gabe ezin da zentzuz jarraitu eraikuntza lanekin.

Zentzua eta datuak jarri nahi ditu mahai gainean Gobernuko Landa Garapen Saitetik. Oposizioak dagoeneko esan du Gobernu honek ez duela Nafarroako ubidearen Bigarren Zatia egin nahi. Eta itxura guztien arabera, Bigarren Zatiaren hasierako proiektua ez da egingo pentsatua zegoen bezala. Hori garbi samar dago. Zer egingo da orduan? Datuak lehenik, 2017ko prozesu parte hartzailea ondoren eta, azkenik, erabakia.

ITOIZKO URTEGIA-NAFARROAKO UBIDEA

Bikote dira urtegi eta ubide iragan mendeko 80ko hamarkadatik, baina frankismoaren amaieran ere entzun ziren jada proiektuaren aldeko hotsak. Zalaparta ugariaren ondoren 1993an ekin zitzaion Itoizko urtegiaren eraikuntza lanari, PSNko Gabriel Urralburu Nafarroako Gobernuko lehendakaria zela.

Itoizko urtegiaren proiektuak liskar sozial eta politiko handia ekarri zuen Nafarroako gizartera. Itoizko Koordinadora izan zen oposizio lanetan aitzindari, mobilizazioa, ikerketa eta lan juridikoa uztartuz. Oposizio lanetan oso entzutetsua izan zen, halaber, Itoitzekiko Elkartasun Taldeek uharka altxatzeko materiala garraiatzeko erabiltzen ziren kableen mozketak ekintza. Sabotaje honek luzez geldiarazi zituen eraikuntza lanak.

2004an bukatu ziren lanak, UPNko Miguel Sanz Gobernuko lehendakari zela. Urtegia prest zen 418 hektometro kubo ur biltzeko eta Nafarroako Ubidea hornitzeko. Urtegiko 240 hektometro kubo ureztatzera bideratzeko da, 60 hektometro kubo herrietako erabilerarako (edateko ura, industria...) eta 117 hektometro kubo etorkizuneko beharretarako (adibidez Nafarroako ubideko Bigarren Zatiarako).

Nafarroako ubideak 198 kilometro izango zituen eta Itoizko urtegitik Nafarroako hegoaldeko azken lurretaraino eramane behar zuen hura. Bi zatitan eraikitzea aurreikusi zen. Lehenengo Zatia 2004an hasi zen egiten eta 2011n bukatu: Itoizko urtegia hasita Pitillas udalerriraino doa, 98 kilometro ditu eta 22.363 lur hektarea ureztatzeko ahalmena du. Agoitz, Urrotz, Iruñerriko Mankomunitatea eta Mairagako Mankomunitateak dute bertatik ura jasotzeko aukera.

BIGARREN ZATIA

Bigarren Zatia Pitillasetik Ablitaseraino doa, 71 kilometro ditu eta 21.522 hektarea ureztatzeko aurreikusten da. Ez da hasi. Lan hau lehenengo zatia baino askoz konplexuagoa da, besteak beste Aragoi eta Ebro arroak iragan beharko lituzkeelako sifoi konplexu eta garestien bidez.

Konplexutasun hau ez da txantxetako eta aurreten bertan Uraren Kultura Berrirako Fundazioak (FNCA, erdarazko sigletan) Foru Legebiltzarrean gogoratu duenez, Antonio Aragón foru sailburu ohiak bazituen zalantzak 1991. urte urrun hartan, CHEko lehendakari izendatu zutenean: “Etorkizunera begira, Nafarroako ubideak Ebro gainditu dezan sifoi bat egitea neurritz kanpoko izan daitekeela uste dut” (*Diario de Navarra*, 1991ko azaroak 17). Geroago Aragónnek eta Gabriel Urralburuk espetsuan bukatu zuten ustelkeriagatik, besteak beste ubidearen adjudikazio lanengatik enpresetan eskupekoak jasotzeagatik.

2011n ubidearen lehenengo zatia amaitzean bigarrenari ekitea zatekeen logikoena, baina ez, CANASAK iragarri zuenez, krisi ekonomikoak bigarren urratsari ekitea eragozten zuen, diru faltagatik. Untxia kapelutik atera eta Nafarroako Gobernuak lehenengo zatiaren zabalkunde fasea erakutsi zuen orduan: Mendigorria, Sesma eta Funesek osatzen duten hirukian zabalduko zen, 21 kilometroko ubidea eta 15.275 hektarea ureztatzeko ahalmenarekin. Ez zegoen dirurik Bigarren Zatiari ekiteko, baina proiektu berri honetarako bai. Oraindik gauzatzen ari da hedapen hau, 2016ko bukaerarako amaitzea aurreikusten zen, baina lanak atzeratuta doaz eta 2019ko irailerako amaitzea aurreikusten da.

BIGARREN ZATIAREN ERABILERA POLITIKOA

Proiektua politizatu eta ez politizatzeaz asperduraraino hitz egin da nafar gizartean, baina proiektua sustraieratik erabat politikoa da. UPN-PPk eta PSNk Nafarroa erdia paradisu bihurtzeko tresna gisa saldu zuten: ubidearekin ura, etorkizuna eta garapena eskura ziren; ubiderik gabe basamortua eta hondamendia. Mezu hori, lehen eta orain, samur sartzen da uraren garrantziaz jabetua dagoen herritarren garunean.

Orain alderdi horiek oposiziotik salatzen dute Uxue Barkosen gobernuak urrik gabe utzi nahi duela Erribera. Mezuak badu bere indarra, baina gero eta gutxiago, baita nekazarien artean ere. Laborariak ikusten dute uraren abantaila, lehorreko lurretatik ureztatzeko lurretara pasatzearen onurak, baina ikusten dute zein garesti ateratzen zaien ere. Nafarroan ez da urrik falta izan, haren antolaketak eta erabilera egokia baizik, baina Nafarroako ubideak gainerako alternatiba eta aukerak ezkutatitu ditu azken bi hamarkadetan.

Hala ere, gauza bat da bigarren fasea lelo politiko gisa erabiltzea eta bestea gauzatzea. UPNren Gobernuak finantzazio modurik topatu izan

balu, seguruenik aurrera aterata izango zukeen Bigarren Zati hau. Oraindik ere, ezin da esan Gobernura iritsiz gero ez lukeenik egingo. Kontua da ez dela egin, diru faltagatik eta baita bere bultzatzaileek ez dutelako proiektua erabat argi ikusi ere. Horren frogarik argiena da orain arte ez dela Bigarren Zatiari buruzko proiektu zehatzik inoiz idatzi.

Diruarekin ibili den bezala ibilita, Espainiako Gobernuari ere gutxi inporta izan zaio hau atzeratzea. 2013ko abuztuan Arias Cañete PPko Espainiako Gobernuko Ingurumen ministroak eta Yolanda Barcina foru lehendakariak Lehenengo Zatiaren Hedapenari buruzko hitzarmena berritu zuten, ohi bezala urtegiaren onurak lau haizetara defendatuz. Bigarren Zatiak, aldiz, ez zuten tutik ere aipatu.

Gerora, eta aho txikiarekin bada ere, Nafarroako Gobernuak behin baino gehiagotan galdegin dio Espainiako Gobernuari Bigarren Zatiak, baina Rajoyren ministroek entzungor egin dute gaurdaino. Arias Cañetek argi jaurti zuen 2012an: “Merezi du Nafarroako Ubidearen alde egitea (...), aukera gehiago ditugunean eta komunitatearekiko planteamendu garbi bat dugunean, prest gaude berraztertzeke”. 2015eko maiatzera arte bederen, bere nafar bazkideek gobernua galdu arte, Espainiako Gobernuak ez zuen beste urratsik eman. Orain ez ematea ulergarriagoa da.

IKUSPEGI KONTRAJARRIAK BALORAZIOETAN

Hainbeste urte eta ika-mikaren ondoren, kontua da herritarrak ez duela bi proiektu handi horiek Nafarroako gizarteari ekarri dioten onurei buruzko balorazio argirik ikusi. Ona izan da, ez, zertan bai, zertan ez, errentagarritasuna, kostuak, kalteak... Nafar gizartearen sektore bat aspaldi ari da eskatzen uraren kudeaketari buruzko eztabaida sakon eta argia, horixe egin zuen Itoizko

Koordinadorak bere garaian eta horixe egin berri du aurtan Ura FNCA fundazioak Legebiltzarrean. Ez da hausnarketa handi eta zabal hori egin oraindik, baina ubidearen Bigarren Zatiaren eztabaidak, gaia lehen lerroa ekarri du indar handiz.

Orain arteko urtegi-ubide bikoteari buruzko balorazio eta azterketa nagusiek datu kontrajarriak ematen dituzte. INTIA enpresa publikoak egin izan ditu hainbat, baina ohikoan UPNko tesi politikoen usainera egin direla salatu dute proiektu hauekiko kritikoei. Badira beste bi azterketa, erakunde edota pertsona autonomoek egindakoak. Zaragozako Unibertsitateko master lan gisa Rosario Brinquisek egindakoa bata (“Itoiz 2012. Un análisis económico”); eta bestea 2015ean Nafarroako Kontuen Ganberak plazaratua (“Nafarroako ubidearen urreztalurren eremuaz egindako fiskalizazio txostena”).

KONTUEN GANBERA ETA BRINQUIS TXOSTENA

Kontuen Ganberaren zeregina da diru publikoak miaztea eta kontrolatzea, eta fidagarritasuna eman ohi zaio bere lanari. Brinquisen lana saritu egin zuen UNEDeko (Urrutiko Hezkuntzako Espainiako Unibertsitatea) Ekonomia Fakultateko Aquae katedrak. Lan mota desberdinak dira, helburu, molde eta datu desberdinetan egindakoak, baina deigarria da bi lanek hain ikuspegi kontrajarriak eskaintzea.

Brinquisen lanak dio Itoizko urtegia eta lehen fasearen emaitzak ez direla errentagarriak gizar-tearentzat, pentsatu baino askoz lanpostu gutxiago sortu direla eta, besteak beste, gaitza izango dela egindako inbertsioa berreskuratzea. Bere esanetan, ubidearen Lehen Zatiak soilik ematen du inbertitutakoaren %27 berreskuratzeke. Bigarren Zatia eginez gero, bakarrik emango luke %28a berreskuratzeke, zati hau oso garestia litzatekeelako.

Berak 2012an zituen datuekin, eta 30 urteko epe bat aztertuta, Itoizko urtegiak eta ubidearen Lehen Zatiak 1.751 milioiko kostua izango luke eta bien ekoizpen gordina bakarrik iritsiko litzateke 1.296 milioi eurora. Beraz defizitariora litzateke, noiz eta mende hasieran Europako Batasunak onartutako Uraren Dekretu Markoak oso argi dioenean erakunde publikoek berreskuratu egin behar dituztela –erabiltzaileen bidez– uraren azpiegituretan egiten diren inbertsioak.

INBERTSIOAN ERE DESBERDINTASUNAK

Gastuetatik hasten dira lehen desberdintasunak. Brinquisek azpiegituren gastuak eta 30 urteko esplotazio lanak aztertzen ditu eta 1.751 milioi euroko kostua ateratzen zaio. Kontuen Ganberak 1.050 milioi azaleratzen ditu, baina bakarrik egindako inbertsioak kontuan hartuta.

Brinquisek 2015eko azaroan Berriari emandako elkarrizketa batean zionez, ubidearen proiektuak aurrera egin badu, hori da INTIA enpresa publikoa horretan tematu izan delako. Salatzen zuen Kontuen Ganberak batez ere INTIAko datuekin egin zuela bere azterketa eta hori harri-garria egin zitzaioela: “Batetik, datuak falta direlako, adibidez kostuei buruz; eta jasotako datuen analisisa ez dutelako egin, bertzetik”.

Hainbat dira Kontuen Ganberak azaleratzen dituen datuak eta ondorioak. Luze joko luke zehaztasunez aipatzea eta datuen labirintoan galtzeko arriskua ere badago. Baina, funtsean, balio dute txostenaren doinura hurbiltzeko. Ubidearen aldekoek sarri aipatzen dute berau euren argudioak sendotzeko, esaterako, 2015eko foru hauteskundetan. Hala zioen UPNko webguneak: “Kontuen Ganberako txosten batek argi adierazten duenez, Nafarroako ubideak eztabaidaezinezko eragin positiboa izan du eremu ureztagarrien aberastasunean, eta nekazari ekoizpena laukoiztu egin du lehorreko uztekin konparatuta”.

NAFARROAKO UBIDEAREN KUDEATZAILEAK

Ebroko Ur Konferentzia: Itoizko urtegia egiteaz arduratu zen eta bere uraren kudeaketa kudeatzen du. Duela 90 urte sortu zen eta berezko izena Confederacion Hidrografica del Ebro da (CHE). Espainiako Nekazariza, Elikadura eta Ingurumen ministerioaren menpe dagoen erakunde autonomoa da.


CANASA: Canal de Navarra SA. Nafarroako ubideaz arduratzen da. Enpresa publikoa da eta Espainiako Gobernuarena da %60 eta %40 Nafarroako Gobernuarena. Interes orokorreko Estatu-ko azpiegitura handien eskumena Madrilgo Gobernuarena da eta ureztatzearena Nafarroako-arena.

INTIA: Enpresa publikoa da eta ureztatze eremuaz arduratzen da. Ureztatzea Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegiturak esan nahi dute gaztelaniazko siglek eta ubidetik lurrera doan prozesuaz arduratzen da, hots, ureztatze azpiegituraz eta ureztatzeko lurrez. Beste hainbat nekazari zerbitzu ere eskaintzen ditu. Ondoren ikusiko ditugun bi enpresen bidez egiten du bere lanaren zati bat.

Aguacanal: Enpresa pribatua da eta Nafarroako ubidearen lehen faseko enpresa kontzesioarioa da. Hau da, bere ardura da ubidearen ura soroetara eramatea (22.445 hektarea). Ubidetik lurretara behar den azpiegitura eraikitzea eta mantentzea da bere zeregina. Acciona, La Caixa eta beste hainbat enpresek osatzen dute.

Aguas de Navarra: Lehen fasea eginda, 2012an erabaki zen ubidearen ura 15.200 hektareatarazabaltzea: hedapen horretaz arduratzen da Aguas de Navarra enpresa pribatua. OHL (jabegoaren %60) eta Agba (Aguas de Barcelona) enpresek osatzen dute Aldi Baterako Enpresen Elkarte.

Nafarroako Ureztatzaileen Elkarte Nagusia: Erabiltzaile komunitateetan antolatzen dira ureztatzaileak: ureztatze sektore bakoitzeko komunitate bat. Guztien artean Nafarroako Ureztatzaileen Elkarte osatzen dute.



INTIAko mapan ikusten den gisan (2015eko datuak), Nafarroako ubidearen emaria 45 m³/seg. da.

Luzeera: 198 km.

Lehenengo Zatia: 98 km, bukatua da. Aire librean eraikia, 60 km.

Sifoiak: 23 km. 3 erregulazio putzu eta 16 ureztatzen hargune ditu.

Iruñeko eta Mairagako

Mankomunitatek, eta Urrotz

herrietako uez hornitzeko 3 hargune.

Lehenengo Zatiaren Hedapena: 21 km (eraikitzen). 5 ureztatze hargune.

Bigarren Zatia: ez da ezer eraiki.

2013ko uzta aztertu ondoren, nekazari ekoizpenaz egiten den balorazioa erabat onuragarria da Kontuen Ganberako txostenean, ondoko datuetan ikusten den moduan.

Uzta mota: 3 produktutik 48ra igo da ureztatzearen ondorioz. Produkzioaren balorea: 17,8 milioi eurotik 68,1 milioira pasatzen da. Lehorreko lurren produktibitatea %13 hazten den bitartean, ureztatutako lurrena %821 hazten da. Ete-

kinari buruz, lehorrekoan etekina 3 milioi bazen, ureztatu ondoren 18 milioikoa da. Lanpostuak: Gobernuak 2009-2012ko epean 22 ustiatze gunetan egindako azterketa baten arabera – horietako 12tan ureztatutako lur eremua handitu da–, oro har, lanpostuak galdu egin dira, baina lanpostu kopurua hazi egin da ureztatzea handitu den horietan. LARRUN honetan Ignacio Gil Landa Garapeneko zuzendari nagusiari egindako elkarrizketan datu hauei buruz galdetu diogu eta

erantzuna zorrotza izan da: “INTIA urteetan ibili da produktu horren salmentan eta Kontuen Ganberak enpresa honek emandako datuekin egin du azterketa”.

Brinquisek nekazari produkzioaz egiten duen azterketa beste ikuspegi batetik egin dago eta urte eta parametro desberdinak erabiltzen ditu, horrela zergatik egin duen azalduz. Kontuen Ganberak Foru Parlamentuak egindako enkarguari erantzuten dio eta batez ere kontuen fiskalizazio lana egiten du. Ez dira ezpal bereko lanak, baina biek gai bera aztertzen dute eta ondorioak desberdinak dira.

Lanpostuei buruz, esate baterako: Brinquisek dio urteko 227 lan unitate sortu direla ureztatzearekin (txostena 2012koa da); bere iritziz, hori oso gutxi da Nafarroako Gobernuak agindutako 8.000 lanpostuekin. Beste datu esanguratsu bat, 2011ko uztaren ekoizpen gordina (produkzioa + dirulaguntzak): lehorreko lurra zirenean 14 milioi euroko balioa zuen eta ureztatu ondoren 46 milioi euro, beraz 32 milioi gehiago dira. Lurraren prezioak ere %120ko balioa irabazi du ureztatua bihurtu ondoren.

Ura FNCA Fundazioak aurtengo otsailean kaleratu zuen *Alternativas de abastecimiento y riego en la ribera sur de Navarra* txostena. Bertan kritika zorrotza egin zioten Kontuen Ganberaren txostenari: “Ezin daiteke hartu Lehen Zatiarekiko analisi sozial eta ekonomikoaren erreferentzia gisa (...) deitoratzen dugu esan beharra, baina txostenak baditu zehatzak ez diren hainbat kontu, eta hori da erabiltzen dituen datuak INTIAk emandakoak direlako, eta oraintsu arte erakunde hau proiektuaren egile izan da”.

Bigarren Zatiaren kostuei buruzko aurreikuspenak ere desberdinak dira FNCA (1.070 milioi euro, eraikuntza eta 30 urteko ustiaketa eta mantenua) eta Kontuen Ganberaren arabera, azken honek 1998an egindako aurreikuspenetako datuak mantentzen dituelako (340 milioi euro, eraikuntza bakarrik). Barkosen gobernuaren

aurreikuspenetan Bigarren Zatiak 713 milioi eurokoak lirake, eraikuntza lanetan.

Fundazioarentzat, Kontuen Ganberako kostuen datuak azpibalaratuak daude, ez delako gaurkotu 1991ko dirua, maileguetako finantza gastuak ez dituelako kontuan hartu eta itzalpeko ordain-sariak ere ez.

CANASA LARRI

Bada zalantzarik ez duen daturik, orain arteko zenbakiekin Nafarroako Gobernuak defizit handia egiten ari da Nafarroako Ubidearen proiektuarekin. 2015eko abenduan Manu Ayerdik eta Isabel Elizalde, hurrenez hurren Nafarroako Gobernuko lehendakariordea eta Landa Garapeneko kontseilaria, agerpena egin zuten Foru Legebiltzarrean ubidearen kudeaketaz arduratzen den CANASA erakundearen berri emateko: 2014an 8,6 milioi euro galdu zituen eta 2015ean 10,4. Horrez gain, 2015ean badira beste 8,5 milioi euro, aurreko Gobernuak eskatutako 77 milioiko mailegu batenak, teoriarik Bigarren Zatik lanei begira bideratuak.

Azalpenen arabera, erakunde publikoek proiektuaren erdia finantzatu behar zuten, CANASAKo jabegoa kontuan hartuta %60 Espainiako Gobernuak eta %40 Nafarroakoak; beste erdia proiektuaren irabaziekin finantzatuko zen. 442 milioi euro gastatu dira orain arte, erakunde publikoek 330 milioi jarri dituzte eta, mailegu bidez, CANASAK 125 milioi. Kontua zen azken hauek berreskuratzea, baina proiektuaren irabazi aurreikuspenak ez dira betetzen ari, hiru arrazoi nagusirengatik. Lehenik, hektareako 6.000 metro kubo ur erabiliko zirela aurreikusi zen, baina ez da 5.000ra iristen, beraz erabiltzailen aldetik gutxiago jasotzen da. Bigarrenik, 2013an Madrilgo Gobernuak energia berriztagarrien salmenta prezioak jaitsi zituen eta elektrizitate salmentagatik lortutako dirua 10,7 milioi eurotik 5,4ra jaitsi zen. Eta hirugarrenik, herrie-

tako ur-hornikuntzatik –edateko ura eta industria– 5 milioi espero zuten urteko eta 1 fakturazten ari dira (aurrerago azalduko dugu Iruñerriko adibidea, azken datu hau hobeto ulertzeko).

Ondorioz, CANASAk defizita egiten du bere ohiko jardueran eta ezin du ordaindu 125 milioi euroko mailegua, beraz erakunde publikoek beren gain hartu behar dituzte bi kontzeptu horiek, bai urteko galera, bai maileguaren amortizazioa.

Galera hauek ikusita, Yolanda Barcinaren jarduneko gobernuaren eskariz, CANASAk uraren prezioa %60 garestitu zuen 2015eko ekainean, ureztatzailen haserrea eraginez. Erabaki horretan ikusi daiteke nola joka dezakeen alderdi batek herritarren diruarekin eta duintasunarekin: CANASAn 2015eko ekainean UPNk %60ko igotera eskatu bazuen, 2016ko ekainean, Espainiako hauteskunde orokorretako kanpainan, Erriberan uraren prezioaren jaitsiera eskatu zion aldaketaren gobernuari, Barkosen gobernuak Erribera baztertu nahi zuela argudiatuz.

Ubidearen urak nekazarien arazoak konpondu behar zituen, eta hainbat kasutan hala izango da, baina beste arazo askotara bideratutako dirua ere zurrumbilo honek irensten du gaur egun, eta horren kezu dira nekazariak, bateko zein besteko. 2015eko Landa Garapenerako Sailak 63 milioi euroko aurrekontua izan zuen eta 18,5 milioi euro bideratu zituen CANASARA, hau da, aurrekontuaren %29,36; aurreikuspenen arabera, aurten ehunekoa handituko da. Larriena da epe motzean gaiak ez duela irtenbiderik eta epe ertainean ehunekoa hori txikitzean dagoela erronka.

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN ADIBIDEA

Duela hiru-lau hamarkada Itoizko urtegiaren proiektua plazaratu zenean, funtsean Nafarroako erdialdea eta hegoaldea ureztatzeko egin behar zen, baina baita herrietarako ur hornikuntza



“

Brinquisen lanak dio Itoizko urtegia eta lehen fasearen emaitzak ez direla errentagarriak gizartearentzat, pentsatu baino askoz lanpostu gutxiago sortu direla eta, besteak beste, gaitza izango dela egindako inbertsioa berreskuratzea”

hobetzeko ere, bereziki, Iruñerrikoa, erdialdekoa eta Erriberakoa. Hiri Buruzagia egarri izan behar zen etorkizunean azpiegitura hau egin ezean. Horrexegatik, Iruñerriak beharko zuelako, ur kopuru handia gorde zen harentzat Nafarroako ubidea bukatu zenean.

2006an CANASAk eta Mankomunitateak kontratua sinatu zuten: urteko eskainiko zion 22,5 milioi metro kubo hartzeko aukera, 1,2 milioi euroko prezioan. Iruñerriak ez zuen behar inondik inora Nafarroako ubideko halako ur kopururik, iturri horretatik gutxi erabiltzen du eta batez ere uda aldean, baina hala sinatu zen. Ondorioz, harrez gero Mankomunitateak milioi bat euroren bueltan ordaindu dio urtero CANASARI.

NAFARROAKO UBIDEAREN LEHENENGO ZATIAREN KOSTUEN KALKULUA (MILIOITAN)

Kostua (2011ko balioa)	Eraikuntza	Mantentzea eta ustiapena 30 urtetan	Kostua guztira (30 urte)
Itoizko urtegia	460	165	625
Nafarroako ubidea	483,5	111	594,5
Ureztatzeko eremua 1.Z	267,1	116,6	383,7
Instalazioa lursailean 1.Z	100	Ez da ezagutzen	100+
Hur hornidura 1.Z	48,5	Ez da ezagutzen	100+
GUZTIRA	1.359,1	392,6	1751,7

Iturria: *Itoiz 2012. Un análisis económico* (Rosario Brinquis).

LEHENENGO ZATIAREN HEDAPENAREN KOSTUEN KALKULUA (MILIOITAN)

Kostua (M€)	Eraikuntza	Mantentzea eta ustiapena 30 urtetan	Kostua guztira (30 urte)
Nafarroako Ubidea, hedapena	42,7	9,8	52,5
Ureztatzeko eremua, hedapena	183,3	84,7	268
Instalazioa lursailean, hedapena	46	Ez da ezagutzen	46+
GUZTIRA	272	94,5+	366,5+

Iturria: *Alternativas de abastecimiento y riego en la ribera sur de Navarra, Itoiz 2012. Un análisis económico* txosteneko datuak estrapolatuz.

ITOIZKO URTEGIA, NAFARROAKO UBIDEA ETA LEHENENGO ZATIAREN KOSTUEN KALKULUA (KONTUEN GANBERA, MILIOITAN)

Finantzazioa				
Eraikuntza	Kostua	Estatua	Nafarroa	Erabiltzaileak
Itoiz	298,1	210,3 (1)	87,7	*
Ubidearen 1. Zatia	486,7	146	97,3	243,4
Ureztatzeko eremua	184,8		170,3	14,3
Instalazioa lursailean	81,2		34,9	46,3
GUZTIRA	1.050,6	358,3	390,3	304

Rosario Brinquis eta Kontuen ganberako kuadroak ekarri ditugu orriotara, bien arteko desberdintasunak ikus daitezkeen. Brinquisek 30 urteko ustiapena kontuan hartzen du, besteak beste, eta gainera garai bateko diruak gaurkotzen ditu. Kontuen Ganberak eraikuntza lanak bakarrik hartzen ditu kontuan.

Iruñerriko Mankomunitatearen ur kontsumoaren gehiena Arteta eta Subizako iturburuek, eta Eugiko urtegiak hornitzen dute: 27,5 milioi metro kubo (2014ko datuak) eta 302.903 euro ordaindu dira; Nafarroako Ubidetik 1,9 milioi metro kubo kontsumitu ziren (%6,9) eta milioi bat euro ordaindu zen horregatik. Konparazioak ez du bestelako iruzkinik behar, baina bistan da Nafarroako ubideko urak urrea balio duela. EH Bilduko parlamentari Koldo Amezketak aurtengo apirillean prentsan zabaldu zuen iritzi artikulua (*UPN, Mancomunidad y el agua de Navarra*) ondo azaltzen du Mankomunitatea eta CANA-SAren arteko kontratuarena.

Horren harira, Mankomunitateko agintari berriek –EH Bildu– eskatu dute hitzarmena berritzea. Estatuaren abokatuaren esanetan hitzarmen hori ezin da berritu, hautsi egin behar litzateke eta berri bat egin. Hori da Iruñerriko Mankomunitateak egin duena, hautsi, eta UPNk oso gogor salatu du, esanez Iruñea ur gabe gelditu litekeela udan.

ESKAINZA ETA ESKARIA

UPNk salatu du, baita ere, EH Bilduk ez duela ulertu nahi Mankomunitatearen hitzarmenean Nafarroako ubidearen eraikuntza sartzen dela. Eta hor dago, egiazki, arazoaren mamia: ez zela egia Iruñerriak ur hori behar zuela eta, beraz, bertako herritarrak behar ez zuten azpiegitura finantzatzen ari direla. 2006tik 2014ra 8,3 milioi euroko kopuru finko gisa ordaindu dio CANA-SAri eta 295.255 euro uraren kontsumoagatik. Arazorik ez zen tokian, arazoa ekarri dute. Eta berdintsu Nafarroa osoan ere.

Funtsean, Ura FNCAk salatzen duenez, eskaintzaren ikuspegiarekin egiten delako lan eta ez eskariarekin. Hau da, “ubidea egingo dugu, ura izango dugu eta gero eskainiko diegu erabiltzailei”. Horregatik eskatzen du fundazioak eredu hori aldatzea ezinbestekoa dela eta eraiki-

tzen den edozein azpiegitura, dagoen eskarian oinarritu behar dela. Behin egin ondoren Nafarroako ubidearen onurak agerikoak dira. Kontua da helburu bertsuak lor zitezkeela beste alternatiba batzuk baliatuz eta ubidearen proiektuak ez duela utzi beste edozein alternatibarako ez lekurik ez dirurik.

ETA NEKAZARIAK?

Gizarte osoan bezala, nekazarien artean ere zenbat buru hainbat aburu. Sindikatuen esparruan UAGN nekazari sindikatu nabarristak Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidearen alde egin du beti sutsuki eta EHNEk aurka. Produktu gehiago ekoizten dira eta ekoizpena asko handitu da hainbat produktutan, adibidez jaun eta jabe bihurtu den artoan (2015ean ekoizpen guztiaren %34). Diario de Navarrako 2012ko erreportaje batean parte hartu zuen David Palacios nekazariak argi biltzen zituen aldekoen argudioak: “Segurtasun handiagoa, produktuak hautatu eta uztak aldatzeko aukera; eta ekoizpena, errentagarritasuna eta lehiakortasuna handitzea ere bai. Funtsean, etorkizunari aurre egiteko aukera gehiago”.

Erreportaje berean Carlos Guembe nekazariak antzeko balorazioa egiten du, baina errealitateari lotuagoa: “Ekonomikoki eta ekoizpenean irabazi egiten dugu, baina denak arreta gehiago eskatzen du eta lana ere biderkatu egiten da; gastuak ere gehiago dira, ura, amortizazioak, kanonak... Lehorreko uzta on bat, hori litzateke bukaerako emaitza”.

EHNEko arduradun batek bestelako ikuspegia zuen 2014an Berrian egindako elkarrizketan: “Nekazari gehienek laboreen monolaborantza-aren alde egin dute. Gainera, ubidetik ura hartzeko sistema jarri duten nekazarien ehuneko handi batek ez du ura erabiltzen, eta beste askok ez du sistema ezartzeko behar den inbertsioa egin, oso garestia delako, batez ere”. Ignacio Gil zen, gaur

egun Landa Garapenerako Saileko zuzendari nagusia, orrialde hauetan elkarriketatu.

Honakoa hau ere aipatu zuen Gilek elkarriketa hartan: “Iruditzen zaigu Itoizko urtegiak duen edukiera osoa ustiatu nahi dutela [Barcinaren gobernuak]. Urtegiak duen azken tanta ere erabiltzeko edo saltzeko aginduko dutela uste dugu. Uraren erabilera publikoaren pribatizazio saio garbi bat egin nahi dute”. Sasoi hartan nekez pentsa zezakeen bera egongo zela Nafarroako Gobernuan, Itoizko urtegiak etorkizunerako gordeta dituen 117 hektometro kubo horiekin zer egin erabakiko dutenen artean.

NEKAZARIAK ORDAINTZEN DUENA

Teorikoki Nafarroako ubidearen inbertsioa erdibana ordaindu behar da erakunde publikoen – Nafarroako eta Espainiako gobernuak – eta erabiltzaileen artean. FNCAk horrela laburbiltzen du nekazariak ordaindu behar dutena:

- Bakoitzak bere lur saila prestatu behar du horretarako hautatzen duen ureztatze sistema jarritz. Lehenengo Zatian %35eko diru laguntza publikoak egon ziren horretarako. Batez beste, 4.000 bat euro hektareako.
- Ureztatzea presioz egin ahal izateko sare bat eratu behar da eta azpiegitura honengatik, aldeaz aurretik ordaindu behar dira 700 bat euro hektareako.
- Urteko kopuru finkoa CHE, CANASA eta Aguacanal: 132,31 euro.
- Uraren kontsumoa, erabileraren arabera: 0,0307 euro metro kuboko.

Hori guztia kontuan hartuta, arto hektarea bat landatu duen nekazariak 6.000 metro kubo ur erabiliz 316 euro ordainduko du urtean.

Iritziak iritzi, argi dago nekazari guztiek ez dute la CANASako aurreikuspenen ur kontsumoa betetzen, areago, oso urruti daude. Enpresa publikoak 5 milioi euro espero zituen erabiltzaileetatik eta milioi 1 bakarrik ari da lortzen.

ETA ORAIN ZER?

Nafarroako ubidearen Lehen Zatia egina dago eta Hedapen Zatia aurea doa. Haien kudeaketa ahalik eta egokiena zaindu behar da orain. Baina, eta Bigarren Zatia? Egoera honetara iritsita, dagoeneko badira etorkizunari bestelako begiekin begiratzeko hainbat datu, erantzun beharreko galderei ahalik eta txukunen erantzuteko.

Aldagai ugari jarraitzen dute aferaren bueltan. Batetik, krisi ekonomikoa bertan geratzeko etorri zen eta Espainiako Gobernuak ez du interes handirik Bigarren Zatiari ekiteko. UPNko gobernu batek presionatuko luke horretarako, eta dirua aurreratu ere bai, beste hainbat azpiegituratan egin zuen bezala, baina orain ez dago halako gobernurik.

Bestetik, CANASaren azken urtetako defizit handia dago, gero eta handiagoa gainera. Hau erabakigarria izango da Bigarren Zatiari begira. Ez hori bakarrik, erabakigarria izango da orain arte ez dela aurreikusi bezainbeste ur erabiltzen ari. Eta erabakigarria izango da, halaber, alternatibei buruz gero eta gehiago hitz egingo dela.

2017 izango da horretaz guztiaz barra-barra hitz egiteko urtea. Landa Garapenerako Sailak bere azterketa jarriko du mahaiaren gainean eta hori ere oso funtsezkoa izango da Nafarroako Erriberaren hegoaldea urez hobeto hornitzen asmatzeko. Azterketaren ondoren Sailak urte osoa eman nahi dio partehartze prozesu zabalari, non eztabaidaren protagonista nagusiak nekazariak izango diren. Eta gero gerokoak.

Ura FNCA fundazioak dagoeneko mahaiaren gainean jarri du bere ikuspegia Interneten esku-ragai dagoen ondoko dokumentuan: *Alternativas de abastecimiento y Riego en la Ribera sur de Navarra. En torno al debate sobre la segunda fase del Canal de Navarra*. Azterketaren amaieran gaur egun mahaiaren gainean eztabaidarako diren proiektuei buruzko honako aukerak aipatzen dira. LARRUN honen amaierarako utzi ditugu, irakurleak aurrera begira egon daitezkeen aterabideei buruzko ikuspegi orokor bat izan dezan.

- Nafarroako ubidearen Bigarren Zatia. Txostenean aipatzen diren arrazoi ugariarekin fundazioak ezezko biribila ematen dio alternatiba honi eta bideraezintzat jotzen du.
- Pitillasetik Erriberarainoko hodia. Pitillaseko putzutik Erriberaraino joango litzatekeen ur azpiko hodia ere hitz egin da. Industriadako eta edateko ura eramango litzateke bide honekin. Kostua Bigarren Zatiarena baino askoz txikiagoa litzateke eta askoz denbora gutxiagoan bideratuko litzateke. Erriberako hainbat eremutan edateko uraren kalitatea ez da nahi bezain ona gaur egun, Tuteran adibidez, eta irtenbide honekin Erriberako aldarrikapen historikoa beteko litzateke.
- Dauden baliabideak optimizatzea. Badira hainbat baliabide eta hauek hobetzeaz gain, kudeaketa hobetu beharko litzateke: Queiles /Val eta El Ferialeko iturrietako kalitatezko ura dago. Aztertu beharko litzateke ea horko urak erabili ahal izango liratekeen udan edateko. Gaur egungo hamaika mankomunitate bakarrean batzea; arroka gutxi batzuk izatea ere posible litzateke. Aztertu behar da ea gaur egun ureztatzera bideratzen den kalitateko ura edatekora bidera ahal den. Ura FNCAk azken honen aldeko hautua egiten du.

ZAINDU MAITE DUZUN UR HORI

Horiek eta gehiago ere aterako dira 2017an bideratu nahi den eztabaida zabal horretan. Edozein kasutan, gauza bat dago argi samar orain eta hori asko da: egungo Nafarroako Gobernuak ez du bultzatuko Bigarren Zatiaren garai bateko asmoa, hau da, lur azalean joango den ubide bat haren antzeko ezaugarriak izango dituen. Hodiaren alternatiba hor dago, baina NFCA txostenean bakarrik herrietako ur gisa aipatzen da. Eta ureztatzeko? Zenbat ur behar da ureztatzera bideratzeko? Partehartze prozesutik datu horretarako laguntza espero du Nafarroako Gobernuak.

Bigarren Zatiaren proiektua, ostera, ukitua bai baina oraindik ez dago guttiz lurperatua, UPN, PSN eta PP berriz Nafarroako Gobernura iritsiko balira, berriz irekiko litzazkioke atea proiektu zaharrari. Gipuzkoan antzekoa geratu da Zubietako erraustegiarekin. EAJk egin zuen proiektua eta eraikuntza lanak hastear zirenean iritsi zen EH Bildu Diputaziora. Proiektua geldiarazi zuen eta gutxik uste zuten erraustegi proiektua berreskuratuko zenik. 2015eko foru hauteskundeetan EAJk eta PSEk berriz hartu zuten agintea Diputazioan eta erraustegi proiektua abiarazi dute berriz.

Herritarrek eta bereziki nekazariak hitz egin ondoren, beraz, erabakiak etorriko dira legealdia- ren amaiera aldera. Bada zer zuzendu Itoiz-Nafarroako ubidearen abentura zakar honetan guztian, ura baliotsuegia baita besterik gabe enpresen esku gera dadin, orain arte Nafarroako ubidean gertatu den gisan. Ehunka milioi euroko inbertsioekin mokadu ederrak eramane dituzte eraikuntza enpresek, eta lanak egin ondoren, ureztatzearen esparrua enpresa pribatuen esku utzi da. Han-hemenka, uraren pribatizatze joera gero eta handiagoa denean, herritarrek bereziki zaindu beharko dute bizitzak duen ondasunik handiena, urik gabe ez baitago bizitzarik. ■

Ignacio Gil Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako zuzendari nagusia:

“Nafarroako ubidearen Bigarren Zatiaren proiektu zaharra egitea baztertua dago”



Fustiñana, 1966. EHNE sindikatuko arduradunetakoa izan da gobernuan ekin aurretik. Nekazaria da eta Erriberakoa izanik ongi ezagutzen du urak bertan duen egoera. Nafarroako ubidearen aurkakoa izan da eta orain haren Bigarren Zatiak erabaki behar duen gobernuko kidea da.

Nafarroako ubidearen Lehen Zatiaren zabalkundea amaitua beharko litzateke aurreikuspenen arabera. Nola doa?

Bi adar daude, Ega ibaikoa eta Argakoa. Ega-koa da atzeratuen dagoena. Gu gobernura iritsi aurretik tentsio oneak izan ziren hainbat udalekin, esaterako Leringoarekin. Hangoa herri kontsulta batekin amaitu zen eta erabaki zuten ez zutela Nafarroako ubideko urik erabiliko haien ohiko ureztatze sistema berritzeko. Carcarrek oraindik ez digu ofizialki erantzun, baina badirudi ez duela parte hartuko Nafarroako ubidean. Egungo aurreikuspenekin, Argako zatian ureztatze hasiera 2018ko apirilera litzateke eta Ega-koa 2019ko irailerako.

Nafarroako ubidearen Bigarren Zatia hor dago, ekin gabe oraindik. Ezer erabaki aurretik, Nafarroako Gobernu berriak azterketa bat agindu zuen 2016rako. Zer ari da aztertzen zehatz-mehatz?

Dugun proiektua erabat defizitarioa da, beraz gure zeregina da proiektu orekatu bat egitea, herritarrek

eta gobernuaren poltsikoek onartzeko gisakoa. Inoiz ez da egon Bigarren Zatiaren proiektu zehatzik idatzia, baina edozein kasutan, hitz egin izan den hura, aire librean joango zena, sifoi bat Ebron eta bestea Aragoi ibaian... proiektu hura dagoeneko baztertua dago. Orain ikusi behar da hari zer gehitu ahal zaion orain arte egindako guztiari ahalik eta etekin orekatu eta handiena ateratzeko.

Aztertzen ari gara ureztatzaile komunitate berriak, komunitateek duten ur ahalmena, jabe-goen egitura, ureztatzailearen figura, ur kostuak, ureztatze alternatibak... Behin beharren, eskarien eta alternatiben mapa hori dugunean, eta kontuan hartuta etorkizuneko erabiltzaileak diru asko jartzen duela, erabakia kontsentsu bidez hartu behar da. Nafarroako ubidea erabaki horien artean izango da, baina ez da bakarria izango. Abendurako argazki hori eduki nahi dugu eta 2017an aipatu kontsentsu hori lortzera bideratutako partehartze prozesua egingo da.

Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidearen aurka egon den gizarte zatiak aspalditik aldarrikatzen du

bikote honek ekarri duenari buruzko azterketa orokorra. Hori ere egingo da?

Orain mahai gainean dugunarekin ari gara, proiektu zaharrak dituen oker horietako asko zuzendu nahian, baina egingo dugun horrek kontuan izango ditu analisi ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Moduak ere aldatuko dira, ez dugu egin nahi lehenik hodiak sartu eta gero galde-tu. Orain arte ere egin izan dira ikerketa ekonomikoak, baina ez ziren errealistak eta lehengo Gobernuaren nahietara janzten ziren. Lerinen adibidez, nik argi esan nien ez niela errentagarritasun azterketarik egingo, haiek badakite ureztatzearen errentagarritasunaz. Guk esango diegu benetan zer balio duen ureztatze sistemak, bestelako ametsik saldu gabe.

Lur sailei begira, Kontuen Ganberako 2015eko txosten batek dio partzelen bateratzeek jabegoen %17ko gutxitzea ekarri dutela eta 19.034 partzelatik 5.620ra pasatu dela. Zer ekarri du horrek?

Ustiaketaren ikuspegitik lurak batzea ona da ohikoan, ez bakarrik Nafarroako ubidearekin, edozein ureztatze laboretan da abantaila bat. Ez da berdin ureztatzea hainbat tokitan diren lurjabe baten zazpi partzela edo denak batera badira.

Txosten horretako beste datu batzuk: "3tik 48 produktura pasatu dira, produkzioaren balorea 17,8 milioitik 68,1era pasatzen da, errentagarritasuna 3 milioitik 18ra...". Ubidearekin nekazaritzari begira jauzi handi bat eman daitekeela esan nahi du horrek?

[Ezetz egiten du tinko buruarekin] Ez da horrela. Kontuen Ganberak INTIAko iturriak bakarrik izan ditu eta –ez dakit ongi dagoen nik hau esatea– enpresa hau proiektuaren propaganda tresna izan da. Hori guztia proiektua saltzeko lehengo moldearen parte da. Bada arrazoi zati bat aipatzen den horretan guztian, baina uste dut esajeratua dela. Adibidez, azken bi urteetan artorearen balioa 230 euro/tonatik 180 euro/tonara

pasatu da. Edozein ekoizlek daki 180 euro horiek, izan Nafarroako ubidean edo beste edonon, errentagarritasunaren muga daudela. Nafarroako ubidearenak ureztatze sistema garestiak dira eta garagarrekin, esate batera, ez dago horri buelta ematerik, ezta hektareako 6 tona aterata ere, eta hori sekulako uzta da. Inork ezin du pentsatu laborantza estentsiboan produktu bakarrarekin egingo dionik aurre inbertsioari, ez bada oso lur kopuru handia duela. Sektoreari bestelako ikuspegia eman behar zaio, balio erantsi handiko produktuei bideratua.


Bigarren Zatiaren hainbat alternatiba daude mahai gainean. Zuen azterketaren datuak ikusi beharko dira lehenik, baina sailak ba al du alde aurreko posiziorik?

Nire iritzia osoa gorde egingo dut, baina irizpide batzuk aipatuko dizkizut. Bigarren Zati horretan herrietarako ura beharrezkoa da eta betiko nekazaritza ureztatuan ere zuzendu behar dira hainbat egoera. Nafarroako ubidea oztopo izan da herrietako ur beharretan Erriberan behar ziren konponketa eta alternatibei begira. Erriberarako ura eskatuz urteetan mezu okerra bidali da Nafarroako gizartera. Ebrok aldenik alde gurutzatzen du Erribera, hor dira Tauste, El Ferial, Lodosa eta Bardeetako ubideak, Queiles eta Alhama errekek, Valeko urtegia... tira, urrez inguratuak gaudela. Azken finean, orain egiten ari garen analisi honek guztiak, balio beharko du Nafarroan ureztatze laborantzaz eta uraz bideratu behar dugun estrategia finkatzeko.

Baina Erriberak erabiliko du Itoizko urtegiko ura edo ez du behar?


Administrazioaren eginbeharra da Itoizko ur ahalmena ahalik eta ondoen optimizatzea. Defizitarioa izan ez dadin, bere ur erabilera zabaldu egin behar da eta erabiltzaileen eskaerak ez dira falta. Baina egiten dena errentagarria izan beharko da bai administrazioarentzat bai erabiltzailearentzat, horrekin jokatu beharko da. ■

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.800 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.




Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.





Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.





Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.




Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.